



HamaiKa

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ALDIZKARIA

cirac

19. Zenb. Uztaila 2023

Pepe Bosca
OPTICOS



DEPORTIVO ALAVES LEHEN MAILARA IGO DA, IGOERAKO
PLAY OFFAREN LUZAPENEAN GEHITUTAKO DENBORAN

EZ DU INOIZ AMORE EMATEN



EIBARREKO EMAKUMEEN
TALDEA KATEGORIA
GORENERA ITZULI DA



AMOREBIETA
NAGUSITASUNEZ ITZULI
DA BIGARREN MAILARA



REALA
TXAPELDUNEN LIGARAKO
SAILKATU DA

1/6

NEURRI HONEK PRODUKTUAREN
ARRISKUA ADIERAZTEN DU.
HONETAN, 1/6 ARRISKU TXIKIA
ETA 6/6 ARRISKU HANDIA
DAGOELA ADIERAZTEN DU.

KUTXABANK KREDITU ERAKUNDEETAKO
GORDAILUEN BERMERAKO FONDOARI ATXIKITA
DAGO, URRIAREN 14KO 16/2011 LEGE
DEKRETUAN EZARRITAKOAREN ARABERA,
FONDO HONETAN BERMATUTAKO GEHIENAKO
DIRU-KOPURUA, GAUR EGUN, GORDAILUGILE
BAKOITZEKO 100.000 EUROKOA DA.



Kutxabank etxebizitza kontua



Urtero, aurreko urteko
urtebeterako
Euriborraren batez
bestekoaren **%60**
eramango duzu,
zure aurrezkietarako.
%0,543ko UTB
ALDAKORRA*.

Eta, gainera, hobari
gehigarriak** lortuko
dituzu etxea erosten
duzunean:

+ %40ko hobari
gehigarria hipoteka
Kutxabanken egiten
baduzu
+ %20ko hobari
gehigarria etxebizitza
jasangarri bat erosten
baduzu

(GEHIENEZ ERE 1.000 €-ko HOBARIA)

* ERRENTAGARRITASUNAREN ADIBIDEA: 1.000 €-ko HASIERAKO
SALDOA DUEN ETXEBIZITZA KONTU BATEK
ETA 300 €-ko ALDIZKAKO EKARPEN BATEK
%0,543ko UTB ALDAKORRA IZANGO LUKE HILABETE BAKOITZEKO
LEHENENGO EGUNEAN. INTERESEN LIKIDAZIOA URTEAN BEHIN.
KUTXABANK ETXEBIZITZA KONTUAREN ORDAINKETA LIKIDAZIO
ALDIAN IZANDAKO EGUNEKO BATEZ BESTEKO SALDORAKO:

LEHENENGO 500 €-ak
%0,01eko ITNrekin,

GAINERAKO LIKIDAZIOAREN AURREKO URTEKO URTEBETERAKO
EURIBORRAREN %60ra, GUTXIENEZ %0,01ean (EURIBORRAREN
2022ko URTEKO BATEZBESTEKO ARITMETIKOA, URTE BATERAKO:
%1,087). UTB ALDAKORRA HIPOTESI HONEN ARABERA KALKULATU
DA: ERREFERENTZIAZKO INDIZEAK EZ DIRA ALDATZEN.
BERAZ, UTB ALDAKOR HORI ALDATU EGINGO DA INTERES TASEN
URTEKO BERRIKUSPENEN KIN (LIKIDAZIOAREN AURREKO
URTEBETEKO EURIBORRAREN URTEKO BATEZBESTEKO
ARITMETIKOA).

** HOBARI GEHIGARRIA

GUTXIENEZ 85.000 €-ko

HIPOTEKA KONTRATATZEAGATIK ETXEBIZITZA KONTUA
KITATZEN DENETIK GEHIENEZ 6 HILABETEKO EPEAN, LIKIDAZIO
BAKOITZARI DAGOKION URTEKO EURIBORRAREN URTEKO BATEZ
BESTEKO ARITMETIKOAREN %40 GISA KALKULATUTA, ETA
ETXEBIZITZA KONTUAREN URTEKO BATEZ BESTEKO SALDOAREN
GAINEAN (GEHIENEZ, AZKEN 6 URTEKOAK). ETA, GAINERA, %20ko
GEHIGARRIA LOR DEZAKEZU, EKAINAREN 1EKO 390/2021 ERREGE
DEKRETUAN OINARRITUTA EMANDAKO A EDO B MOTAKO ZIURTAGIRI
ENERGETIKOA DUEN ETXEBIZITZA BADA. HOBARI GEHIGARRI HORI
HIPOTEKA FORMALIZATU ETA HURRENGO HILEAN ORDAINDUKO DA.

kutxabank





3	EDITORIALA
4	BATZORDE OROIKORRA
5	EUSKAL KOPAK
6-7	LEHEN MAILA
8-9	BIGARREN MAILA
10-13	RFEF 1./ RFEF 2./ RFEF 3.
14-16	EUSKAL SELEKZIOAK
17-19	EMAKUMEEN FUTBOLA
20	ERREGIONALA
21-22	OINARRIZKO FUTBOLA
23-25	ARETO FUTBOLA
26	BERRIAK

©:

EUSKADIKO FUTBOL
FEDERAKUNDEA
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL

Erredakzio Batzordea
Comité de Redacción
Javier Landeta, Kepa Allica,
Haritz Gallastegi, Neil Ganzabal
y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación
Disenu eta Maketazioa
Diseño y Maquetación
Cantera Deportiva S.L.
Argazkiak. Fotografías
Federación Vasca de Fútbol

HAMAIKA
Euskadiko Futbol Federakundea
Julian Gaiarre 48 bajo
48004 BILBAO
Tfnoa: 94 473 19 00
info@euskadifutbol.eus
Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador
Laguntzailea



Hamaika ez da bere laguntzaileen
iritziak erantzule egiten
Hamaika no se hace responsable
de la opinión de sus colaboradores/as

EDITORIALA

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA INDARKERIA EKINTZEN ETA GORROTO DELITUEN AURKA

Denboraldi berri bat amaitzen da eta, beraz, balantzea egiteko unea da. Kirol arloan, zorionak eman nahi dizkizuet zuen helburua betetzea lortu duzuen guztiok.

Bestalde, Euskal Selektzioak gure emakumezkoen taldearen bitartez nazioarteko partida bat jokatu duen denboraldia izan da. Gainera, Euskadiko selektzio gazteenek oso paper ona egin dute euren lehiaketetan.

Beste gai bati helduta, adierazi nahiko nuke oso kezkatuta gaudela 2022-2023 denboraldian zehar gure inguruan izan diren indarkeria ekintzengatik eta gorroto delituekin lotutako beste ekintza batzuegatik.

Euskadiko Federaziotik irmo adierazi nahi dugu horrelako ekintza guztien aurka gaudela. Gure zelaietatik desagerrarazi behar dugun jokabidea da, eta ezin dugu gure futbolearen normaltzat hartu. Hala, hiru Lurralde Federazioak arlo horretan egiten ari diren lan bikaina azpimarratu nahi dut.

Federazio-bulegoetan egiten den barne-lanaren barruan, esan behar da gardentasun handiagoa lortzeko asmoz Federazioaren egoera ekonomikoaren auditoria egiten ari dela, eta etengabeko hobekuntzarako ekintzak lantzen jarraituko dugula. Urtebeteko agintaldia dugu, eta barne-kudeaketako prozesuak berrikusteari ekin behar diogu. Federazioko langileen lana eta lankidetzak eskertzen ditut.

Geratzen den agintaldi urtean, Euskadiko Futbol Federazioa jendearen ikuspegitik gure herrialdeko gizartean aktore garrantzitsua izatea lortu nahi dugu. Balio erantsiarekin lagundu ahal izatea ekimen, proposamen eta proiektu ugari biltzen dituen atal batean. Eta Euskadiko Federazioak ere maila horretan egon behar du, derrigor.

Denboraldi bat amaitzen da eta hurrengo egunean beste bat hasten da. Jarduera ez da gelditzen. Eskerrik asko Euskal Futbol mundu guztiari zuen konpromisoagatik.

Eta uda on.

Javier Landeta.

Euskadiko Futbol Federakundearen Presidentea.

BATZAR NAGUSIAK 2023-24 DENBORALDIKO OINARRIAK EZARRI DITU

*Sanagustin Kulturgunean
egin zen berriro ere,
ekainaren 29an, Euskadiko
Futbol Federazioaren
Batzar Nagusia, Javier
Landeta buru zela.*

Presidentearen hasierako hitzaldiaren ondoren eta akta egiaztatzeko Batzarreko hiru kide aukeratu ondoren, denboraldiko memoria aurkeztu zuten, amaitutako kanpainaren balantzearekin eta hurrengo ekitaldirako aurrekontuarekin batera.

Galerak izan ziren arren - 128.210 euro inguru-, biak onartu ziren.

2023-24 denboraldirako egutegiak eta txapelketa planak aurkeztu ondoren, areto futboleko jokalarionenaren sariak eman zituzten, Hirugarren Maila eta Euskal Liga



kategorietan. Batzarra amaitzeko, denboraldi honetako RFEFko 3. mailako arbitro eta marrazain

onenaren saria eta aurreko kanpainetatik eman gabe zeudenak banatu zituzten.

¡200€ de descuento
en cámaras Veo para
nuestros federados!

Empieza ya a grabar y analizar
tus partidos con Veo.



veo X



EUSKAL KOPAK ITZULI DIRA, FINAL FOUR FORMATUAREKIN

Deportivo Alaves, Athletic Club B eta CD Elorrio izan dira, hurrenez hurren, Kadete, Gazte eta Emakumeen Euskal Kopetako txapeldunak.

Euskal Kopak Final Four formatuarekin itzuli dira, berritasun nagusi gisa. “Batzen Gaituelako- Porque Nos Une” lelopean, Deportivo Alavesek, Athletic Club B-k eta CD Elorriok irabazi zuten txapeldunen kopa Kadete, Gazte eta Emakumeen kategorietan, hurrenez hurren. Hiru Final Fourrek ezau-garri komun batzuk izan zituzten: giro ona eta antolakuntza itzela parte-hartzaileei eta Kopen egoitza izan ziren taldeei esker.

Errenterian ikusi zuten Deportivo Alaves Athletic, Euskal Ligako txapelduna, gainditzeko gai izan zela. Baita, ondoren, final handian, penaltietan, Realari irabazteko ere, zeinek, era berean, FC Romo bi-dean utzi baitzuen.

Gernikan, berriz, Athletic Cluben eta Indartsu Clubaren arteko partida parekatua ikusi zuten, eta lehoiek irabazi zuten. Gasteizko derbian, CD Betoño nagusitasunez gailendu zitzaion Gasteizko Lakuari. CD Betoñok borrokalari jardunda egin zion aurre talde zuri-gorriari, baina lehoiek txapeldunen garaikurra altxatu zuten azkenean.

Azkenik, Laudion aukera izan zuten Ellakuri estadioan egiten zuten bero handiarekin parte hartzaile guztiek egin zuten ahaleginaz gozatzeko. Justu-justuan eta azken uneetan izan zen, baina CD Elorriok Deportivo Alaves kanporatu zuten finalerdietan. Eta, geroxeago, bigarren finalerdian,



Athletic Club B-k



Deportivo Alavesek



CD Elorriok

SD Eibarrek harridura eragin zuten. Final parekatua izan zen, eta leko berdinketaren ondoren, penaltien

txanda iritsi zen, eta armaginak kopako txapeldun egin ziren, Realaren tokia hartuta.

ATHLETIC CLUB EUROPARA ITZULTZEKO ATARIAN GERATU DA

Zuri-gorriek liga hasiera itxaropentsua egin zuten, baina azken bolada txar baten ondorioz Conference Leagueko postuetatik kanpo geratu ziren.

Fran Vicente



KOPARAKO ILUSIOA FINALERDIETAN AMAITU ZEN

Athleticek beste denboraldi batez ilusio-natu zituen bere zaleak Kopan, eta kanporaketak gaindituz joan zen finalerdietara iritsi arte, Osasunaren aurka indarrak neurtzeko. Joaneko partidari Iruñean gutxieneko aldearekin galdu ondoren, San Mames bete egin zen itzulerarako, eta luzapenaren azken minutuetan sartutako gol batek beste final batetik alendu zituen zuri-gorriak.

Athleticek denboraldi amaierara arte bilatu nahi izan zuten leku bat hurrengo kanpainan Europan lehiatzeko, baina azken bolada

txarrak zortzigarren postuan utzi zuten Ernesto Valverderen taldea, Conference Leagueetik pauso batera.

Apirilean hiru partida jarraian

irabazi ondoren, talde zuri-gorriak bost puntu lortu zituen azken zortzi jardunaldietan, eta zifra horiek Europako txapelketetatik alendu zituen.

HOTEL
GRAN
BILBAO

Un lugar donde la vida está para vivirla, para soñarla.
Planea una escapada cerca de casa.

¡Alójate con nosotros!



LIFE IS AN **EXPERIENCE**

15% de dto.
para lectores de la revista

Código: **HAMAICA**



REALA TXAPELDUNEN LIGARAKO SAILKATU DA

Talde donostiarrak laugarren postuan bukatu zuen azken txanpa bikaina egin eta gero, izan ere, azken hamar jardunaldietako talderik onena izan zen Atletico Madrilekin batera.

Fran Vicente



Realak denboraldi ikusgarria egin zuen, Txapelaldunen Ligako hurrengo edizioarako txartela ematen dion laugarren postuan amaituz.

Imanol Aguacilen taldea liga hasieratik jarri zen goiko taldeen multzoan, eta lehiaketa sasoi bikainean amaitu zuen, Atletico Madrilekin batera Ligako azken hamar

ERROMAK FINAL ZORTZIRENETAN EMAN DIO AMAIERA EUROPAKO ABENTURARI

Erregularatasunaren torneoan lan ona egiteaz gain, talde donostiarra Europa Leaguen eta Kopan ere nabarmendu zen. Estatuko txapelketan final laurdenetaraino iritsi zen, eta bertan gutxieneko aldearekin galdu zuen Bartzelonaren aurka (1-0) etxetik kanpo. Europa Leaguen, Erromak, zeina gero finalista izan baitzen, final zortzirenetan kanporatu zuen.

jardunaldietako talderik onena izanik eta Europako lehiaketa onenean lekua ziurtatuz.

IPARBUS

ISO 9001
BUREAU VERITAS
Certification

Member of
BASQUE LUXURY

IPARBUS
VIP SERVICES

MINIBUS VIP
hasta 20 plazas

AUTOCARES VIP
hasta 47 plazas

943 491 801 | 606 305 143

www.iparbus.com



ALAVES LEHEN MAILARA IGO DA FINAL AGONIKO BATEAN

Igoerako play-offeko finaleko itzulerako partidaren luzapenaren azken unean penaltiz sartutako gol batek Lehen Mailara eraman zituen babazorroak.

Fran Vicente



Alavesek ez du inoiz amore ematen. Eta berriro ere erakutsi zuen Levanten, hain zuzen ere etxekoak Lehen Mailara igotzea ospatzen

ari zirenean. Orduan historia aldatu zuen jokaldia iritsi zen. Aldeko penalti batek zeruko atea ireki zizkien gasteiztarrei partidako azken jokaldian. Asier

ZUZENKO IGOERAREN ATARIAN LIGA ERREGULARREAN

Alavesek laugarren postuan amaitu zuen denboraldia, Granadak eta Las Palmasek bete zituzten igoera postuetatik puntu bakarrera, eta play-offean jokatu behar izan zuen Lehen Mailarako igoera. Finalerdietan Eibar gainditu zuen eta final handian Levante. Mendizorrotzan golik gabe berdindu ondoren, modu agonikoan irabazi zuen Alicante (0-1), Ligara itzultzeko.

Villalibrek sartu zuen gola. Eta hola itzuli zen Glorioso estatuko futbol elitara, merezitako maila igoera handitasunez ospatu zuen zale txuri-urdinen euforia piztuz.

liberygrupo.com
f t i

VTC Service
libery

- Premium Taxi
- Transfer aeropuerto-estación-hotel
- Tours turísticos
- Eventos / Galas / Congresos
- Compañías aseguradoras

BUS Service
libery

liberygrupo.com
T: 945 259 300

- Alquiler de autocares y microbuses
- Transporte escolar y de empleados
- Viajes turísticos / Agencias
- Eventos / Congresos
- Clubes deportivos / Aficiones

EIBAR BERRIRO ERE LEHEN MAILARA ITZULTZETIK OSO GERTU

Gaizka Garitanoren mutilek play-offean galdu zuten Alavesen aurka, denboraldiaren zatirik handienean lehen bi postuetan egon ondoren.

Fran Vicente



**JOSEBA ETXEBERRIAK
ARMAGINEN AGINTEA
HARTU DU**

Aldaketa Ipuruako aukian. Joseba Etxeberriak Gaizka Garitanoren lekua hartuko du Eibarren, berriz ere Lehen Mailara igotzeko borrokan sartzeko helburuarekin. Entrenatzaile elgoibartarrak Mirandesen egindako lan onaren saria jaso du eta denboraldi baterako kontratua sinatu du gorriurdinekin jarduteko. Zuzendaritza Batzordeak mailan duen esperientzia baloratu zuen.

Eibarrek arantza bat zeukan sartuta aurreko denboraldiaren amaieratik, baina ezin izan du atera, aurtengo amaiera iazkoaren antzekoa izan

baita. Denboraldiko zati handi batean Lehen Mailara igotzeko postuetan egon ondoren, Gaizka Garitanoren taldea postu horietatik behera erori zen liga erregularreko

azken bi hilabeteetan. Ipuruakoek, orduan, play-offean bilatu zuten igoera, baina lehen kanporaketan galdu zuten gasteiztarren aurkako euskal norgehiagokan.



**Baserriko esne
jasangarri litro
baten atzean
dagoen guztia
ezagutu nahi duzu?**



**EGIN ERRESERBA
eta zatoz bisitan!**

www.kaikubaserria.eus



AMOREBIETA, RFEF-EKO 1. MAILAKO TXAPELDUN ABSOLUTUA, 2. MAILARA IGO DA

*Amorebieta Federazioko
1. mailako txapeldun
absolutua izan da eta
SmartBank Ligara
itzuli da soilik urtebete
igarota.*

tu dituen talde honen etengabeko lan irmoari esker. Gauzak ez ziren ondo hasi urdinentzat, txapelketa hasi eta bi hilabetera azkenak baitziren, baina Haritz Mujikak

gidatzen duen taldeak, engranajea koipeztatu ondoren, beste inork eutsi ezin izan dion gurutzaldi abiadura ezarri zuen. 2021ean Amorebietak arrabola aplikatu zuen; bi urte geroago, berriz, mailu handia, eta horrek aukera eman dio maila jauzia ziurtatzeko, azken hiru jardunaldietara inoren mende egon gabe iritsita. 2. multzoan txapelketa egin eta zuzeneko igoera lortu ondoren, supertxapeldun ere izan da Amorebieta, zenbaketa globalean Ferrolgo Racingi 3-2 irabazita.

David Novo

Berriz ere egin du. Amorebieta bigarren aldiz igo da azken hiru urtetan SmartBank Ligara. Eta hori mugarri bat da 20.000 biztanleko udalerrri bateko klub batentzat. 2021ean formatu desberdineko liga batean izan zen, eta hamabost egunetan bi partidako play-off bat egin ondoren, denboraldi honetan Urritxeko taldeak Federazioko 1. mailako 2. multzoko txapeldunaren garaikurra altxatu du, duela urtebete maila galdu ondoren, joklari guztiak -bi izan ezik- ordez-



DASTATU GURE ARDOAK.
¡EGIN ZURE ESKAERA GAUR
BERTAN!

EXPERIMENTA NUESTROS
VINOS. ¡HAZ TU PEDIDO
HOY MISMO!

arral97.com

ARDO BANATZAILEAK
DISTRIBUIDORES DE VINO

Mallabia, Bizkaia
943 17 60 75
arral@arral97.com

SANSEK PLAY-OFFA JOKATU DU, REAL UNION SALBATU EGIN DA ETA BILBAO ATHLETIC JAITSI EGIN DA

Filial txuri-urdinak galdu egin zuen igoera fasean Alcorconen aurka, Irungo taldea dagoen mailan geratzea lortu zuen eta zuri-gorrien bigarren taldea jaitsi egin da.

David Novo

Real Sociedad Bk ezin izan zuen, Amorebietak bezala, iaz galdutako maila urtebetean berreskuratu. Donostiarren bigarren taldeak bosgarren postuan bukatu zuen txapelketa erregularra eta Alcorconen aurka jokatu zuen igoera fasean, baina madrildarren aurka 1-2 galdu zuen Zubietan, eta Santo Domingoko Munizipalean 1-1 berdindu. Aho zapore ona, hala ere, Sergio Franciscoren mutilentzat, nahiz eta futbol profesionalaren atarian geratu.

Real Unionek, berriz, salbazioaren helburua lortu zuen. Stadium Galekoek mailari eutsi zioten, azken jardunaldian La Nucia bezalako aurkari zuzen bat mendean hartuta, zeina, azkenean, Federazioko 2. mailara jaitsi baitzen. Lasai hartu dute arnasa gipuzkoarrek, kanpaina batean non

hiru entrenatzaile (Aitor Zulaika, David Movilla eta Iñaki Goikoe-txea) saiatu diren irundarren norabidea zuzentzen.

Askoz ere zorte txarragoa izan zuen Bilbao Athleticcek. Filial zuri-gorria ez zen gai izan aurkariekin lehiatzeko behar den maila emateko, iaz mailari eusteko sufritzen ibili ostean. Ikasturte honetan, ordea, ezin izan da jaitsiera saihestu, nahiz eta Bingen Aros-tegik, azaroaren amaierara arte bizkaitarren aulkian egon zenak, eta Alex Pallaresek ahaleginak egin 60ko hamarkadan sortutako Bilbao Athletic Estatuko futbolaren laugarren mailara lehen aldiz ez jaisteko.



Aurkia eta ifrentzua bi talde filialentzat



¿Cuánta seguridad necesitas?

No podemos asegurar que tu equipo gane este fin de semana...

En cambio podemos ofrecerte la tranquilidad de estar siempre protegido. Con Surne tienes el seguro que se adapta a ti y a tus necesidades para todo lo que quieres proteger.

- Vida
- Baja diaria
- Accidentes
- Jubilación
- EPSV
- Ahorro
- Dependencia
- Autónomos
- Inversión

cmb
bizkaiako medikuen elkargoa
colegio de médicos de bizkaia
SEBIMEC
ASEGURU-ARTEKARITZA S.M.
CORREDURIA DE SEGUROS S.L.

surne
seguros a pensiones

BILBAO
Cardenal Gardoki, 1
48008 Bilbao
944 792 200

SAN SEBASTIÁN.
Easo, 7 · 1ºD
20006 San Sebastián
943 430 798



Las Llanas pozez lehertu zen Sestao Riverren Liga tituluarekin

SESTAO RIVER, JAUN ETA JABE BERE MULTZOAN

Sestao River Federazioko 2. Mailako 2. multzoko txapeldun bihurtu zen hiru asteko aurrerapenez, eta txapelketan, hasi eta buka, lider izan ondoren: Ligako lehen asteetan lehen postua partekatuz eta bigarren itzulian bere jarraitzaile hurbilenarekiko 12 puntuko tartea izatera iritsiz. Titulua eta igoera, erabateko nagusitasunez.

IGOERA BAT, JAITSIERA BAT, BI TALDE PLAY-OFFETAN ETA BAT ATARIAN; HORRA HOR EUSKAL HERRITARRENTZAKO BALANTZEA

Sestao Riverrek RFEFko 1. Mailara jauzi egin zuen; Beasain RFEFko 3. Mailara jaitsi zen; Alavesek eta Gernikak igoera fasea jokatu zuten eta Arenas atarian geratu zen.

David Novo

Irriak eta malkoak denboraldi honetan Federazioko 2. Mailan lehiatu diren bost euskal taldeentzat. Sestao River taldea ikaragarri fidagarri agertu zen txapelketa osoan zehar, ia-ia

akatsik egin gabe, eta futbol ez-profesionalaren maila gorenera bide azkarretik itzuli zen, 2. multzoko txapeldun bihurtuz.

Nabarmentzeko modukotzat jo daiteke Alaves B-ren eta Gernikaren kanpaina. Babazorroek bigarren postua lortu zuten liga erregularrean, baina galdu egin zuten Atletico Sanluqueñoren aurka Federazioko 1. Mailara igotzeko behin betiko kanporaketan. Arabarren filialak 2-0 galdu zuen joanekoan eta 0-1 itzulerakoan. Lehen kanporaketan arabarrek argi eta garbi kanporatu zuten Zamora. Gernikak, bere aldetik, bosgarren

postuan bukatu zuen txapelketa eta play-offean porrota jaso zuen Real Avilesen aurka, 0-0 Urbietan eta 3-0 Asturiasen. Riverrek eta Gernikak Kopako hurrengo edizioan jokatu dute Bestalde, Arenas RFEFko 1. Mailara igotzeko fasean parte hartzeko atarian geratu zen, azkenean bederatzigarren postuan geratu ondoren.

Albisterik txarra Beasainek eman zigun. Bagoilariak kanporaketa bat jokatu behar izan zuten Hirugarren Mailara ez jaisteko baina Ourensen 1-0 galdu zuten, Loinazen golik gabe berdindu ondoren.

Coca-Cola

BARAKALDOK LIGA IRABAZI DU ETA GORA EGIN DU PARTIDARIK GALDU GABE

Barakaldarrek historia egin dute RFEFko 3. Mailako euskal taldean, partidarik galdu gabe irabazi baitute txapelketa. Barakaldokoak Federazioko 2. Mailara igo dira.

David Novo

Barakaldoren nagusitasuna hain izan da handia, ze 30 jardunaldi eskaseko Ligan soberan izan zituen bost partida. Lasarrekoek ez zuten partida bakar bat ere galdu, eta, gainera, jokoan zeuden puntuen %84,4 irabazi zituzten. Titulua eta igoera bide azkarretik lortu dituzte Ezkerraldekoek.

Vitoria, Leioa, Basconia eta Deustu izan ziren Federazioko 2. Mailara igotzeko play-offak jokatzeke sailkatu ziren lau taldeak, aurreko ikasturtean Alaves B eta Beasain taldeek lortutako igoera bikoitza errepikatzeke asmoz. Tomateroek mendean hartu zuten Vitoria (0-0 Etxezurin eta 1-2 Unben). Leioako taldeak, berriz, Athleticen bigarren filiala gainditu zuen, Artunduagan 1-0 galdu eta itzulerakoan 2-0 irabazi ondoren. Final autonomikoa gorriurdirin garaipenarekin amaitu zen hala Etxezurin (1-2) nola Sarrinenan (2-1). Behin betiko kanporaketan Leioakoak Kanarietako San Fernando taldearen kontra

lehiatu ziren. Urtzi Arrondoren mutilek bi goleko errenta lortu zuten, baina Kanarietan ez zuten egun ona izan eta 4-0 galdu zuten; honenbestez, Federazioko 2. Mailaren atarian geratu ziren.

Liga erregulararen behealdean, azken hiru postuak Touringek (14. postua), San Inaziok (15. postua) eta Aurrera Vitoriak (16. postua) hartu zituzten.

**2023/24 LIGAK
18 TALDE IZANGO
DITU BERRIRO**

Kanpaina honetan Federazioko 3. Mailan 16 talde lehiatu badira ere, Espainiako Futbol Federazioak onartu du datorren denboraldian multzo bakoitzean berriz ere 18 talde egotea, lehia areagotu dadin eta txapelketa luzatu dadin, zeren eta txapelketaren formatu erregularra apirileko hirugarren astean amaitu baita ikasturte honetan. Txapeliduna zuzenean igoko da, lau taldek play-offa jokatuko dute eta hiru jaitsi egingo dira.



Barakaldo, txapeldunen koparekin



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Julian Gaiarre 48 bajo
48004 Bilbao
Tlf.: 94 473 19 00
Fax: 94 473 22 21

La información en un

click



Web | www.euskadifutbol.eus
Twitter | @EFF_FVF
Instagram | EFF_FVF

14 #GIZONEZKOEN SELEKZIOAK



14 urtez azpikoak



16 urtez azpikoak

EUSKADI, 14 URTEZ AZPIKOETAN ETA 16 URTEZ AZPIKOETAN, URREZKO FASEAN ESTATUKO TITULUAK ESKURATZEKO BORROKATIK KANPO GERATU DA

Urdulizen egindako lehen fasea ilusionagarriaren ondoren, Euskadiko selekzioak tituluak lortzeko lehiaren Urrezko Fasetik kanpo geratu ziren.

Raúl A. Collantes

Otsailean Cadizen jokatutako Urrezko Faseko neurketetan, emaitzak ez ziren onak izan Euskadiko gizonen taldeentzat. Haurrek ez zuten zortetik izan markagailuan, aldagelako kide guztiek ahalegin handia egin arren. Gaztettoek 0-2 galdu zuten Andalziaren aurka lehen neurketan, 0-2 Asturiasen

aurka eta 2-6 Valentziaren aurka, atsedenaldira bi goleko berdinketarekin joan ziren partidan. Kadeteek, bestalde, 0-1 galdu zuten estreinakoan Andalziaren kontra, gero 1-3 galdu zuten Galiziaren aurka bigarren neurketan, eta 1-4 galdu Madrilen kontra; hortxe bukatu zen kadeteen parte hartzea.

15 #EMAKUMEZKOEN SELEKZIOAK



15 urtez azpikoak



17 urtez azpikoak

EUSKADI, 15 URTEZ AZPIKOETAN, IA-IA FINAL HANDIRA IRITSI DA, ETA 17 URTEZ AZPIKOAK URREZKO FASERA IRITSI DIRA

Bi selekzioek lan ona egin dute Estatuko txapelketetan, non joko maila gero eta altuagoa den, eta exigentzia maila izugarria.

Txemi García

Euskadi, 15 urtez azpikoetan, bere kategoriako final handia jokatzeko atarian geratu zen. Joan den ekainaren 9an Kataluniaren aurka neurtu zituen indarrak finalerdietan San Juan del Puertoko Pepe San Andres Udal Estadioan. Aurkaria indartsu agertu zen, eta garaipena lortu zuen (2-4). Hara iris-

teko, Miren Arrondok eta Berezi Ruizek, Maitena Martinek eta Jaione Floresek entrenatutako jokalariek puntu guztiak (6 puntu) bildu zituzten lehen fasean, eta ondoren bigarren sailkatu ziren. 17 urtez azpiko taldea, berriz, ezin izan zen hain urrun iritsi, bi garai-penekin sailkatu ondoren eta golik jaso gabe. Jon Kepa Gonzalezek eta Eztizen Merinok zuzentzen duten taldeak Valentzia, Madril eta Katalunia bezalako etsai handien aurka jokatu zuten Urrezko Fasean. Lehen partidari kataluniarren aurka galdu izana (0-1) kolpe latza izan zen, nahiz eta ondoren madrildarrei irabazi (2-1). Azken norgehiagokan, gureek amore eman zuten valentziarren kontra (4-2), eta kanporatuta geratu ziren.



12 urtez azpiko neskak



12 urtez azpiko mutilak

12 URTEZ AZPIKO BI EUSKAL TALDEEK LAN ONA EGIN ZUTEN

12 urtez azpiko kategorian, Euskadiko bi selekzioek aurpegia eman zuten Espainiako Txapelketan. Neskak final laurdenetara iritsi ziren.

Gizonezkoen taldeak ezin izan zuten multzoen fasea gainditi, baina jokatu zituen lau partidetatik bi irabazi zituen. Balear Uharteen aurka 2-3 galdu ondoren, 0-1 gailendu zitzaion Asturias, 0-1 galdu

zuen Nafarroaren aurka eta 2-1 irabazi zion Gaztela-Mantxari.

Emakumezkoen 12 urtez azpiko taldea final laurdenetan kanporatu zuten (0-3), Andaluzia txapel-dunordearen aurka jokatuta. Aurreko fasean, neskek golik gabe berdindu zuten Balear Uharteen aurka, baina ondoren gainerako neurketa guztiak irabazi zituzten: 2-1 Asturias, 1-0 Nafarroari eta 3-0 Gaztela-Mantxari.

Partida guztiak Madrilgo Erkidegoan jokatu ziren apirilaren amaieran.

EMAKUMEZKOEN LIGAN, GORABEHERA HANDIKO DENBORALDIA IZAN DA REALARENTZAT ETA ATHLETICENTZAT, ETA DEPORTIVO ALAVES JAITSI EGIN DA

Gipuzkoarrak eta bizkaitarrak ahalik eta goren geratu nahian borrokatu ziren Espainiako Futbol Nazionalaren maila nagusian. Arabarrak, berriz, jaitsi egin ziren.

Txemi García

Ez da emakumezkoen Ligako kanpainarik onena izan ez Realarentzat, ez Athleticentzat, ez Alavesentzat. Txarrena azken horientzat izan zen, soilik bi puntugatik galdu baitzuten maila. Iñigo Juaristiren neskak aukerekin iritsi ziren txapelketako azken txanpara baina azken jardunaldietan izandako hiru berdinketak ez ziren nahikoa izan emakumezkoen Ligan jarraitzeko.

Reala, berriz, zalantzazko hasiera baten aurrean erreakzionatzen saiatu zen, zeren eta kanpoan geratu baitzen bai Erreginaren



Real Sociedad-Athletic

Kopako final zortzirenetan bai Champions txapelketako lehen parte hartzean. Natalia Arroyoren neskek emaitzen krisia jasan behar izan zuten otsailean, eta horrek lehen postuetatik urrun utzi zituen, eta irregulartasun hori amaierara arte luzatu zen.

Estualdi handiagoa pasatu zu-

ten Lezaman. Iraia Iturregiren lehoiek bost neurketa galdu zituzten jarraian Ligan, urtaril erdialdetik eta otsailera bitartean, eta hurbil izan zuten jaitsiera. Sei jardunaldi baino ez ziren falta lau garaipeni esker mamuak eremu gorritik urrundu zirenean. Horri esker, behintzat lehiaketako azken asteak lasaiagoak izan ziren, Kopa buruan zutela.

K.O.-aren txapelketan, bolada txarra luzatu egin zen, eta bizkaitarrak izan ziren final zortzirenetatik harago iritsi ziren euskal ordezkari bakarrak. Lehoiek Madril CFF kanporatu zuten fase horretan (0-1) eta ondoren sufritu egin zuten Osasunaren aurka final laurdenetan (1-2). Baina finalerdietan Real Madril zuri-gorriak baino askoz gehiago izan zen (0-4). Bai Realai bai Alaves final zortzirenetan kanporatu zituzten. Donostiarrek Atletico Madrilen aurka galdu zuten (0-2) eta Alavesek Granadaren aurka (1-0).

Sport·designer




GRUPO CAMPUS

precio / prezioa
9,90 €

Diseño de ejercicios de entrenamiento, simulaciones de situaciones de juego en movimiento, creación de jugadas de estrategia, creación de formatos de convocatorias, books de ejercicios y estrategia, acceso a contenidos y formatos on-line, etc...

Disponible en Euskera – Castellano.

Más información: www.sport-designer.com



EIBAR EMAKUMEZKOEN LIGARA ITZULIKO DA ETA ATHLETIC B-K RFEF-KO 1. MAILARI EUTSI DIO

Armaginak esprint zirrargarrian itzuli dira maila nagusira, eta lehoikumeek, mirariz, azken txanpan eutsi diote mailari.

Txemi García

Eibarrek zerua jo du berriro. Ondo sufrituta eta azken hasperenera arte lan



Eibarrek kategoría gorenera itzuli izana ospatu du

eginez lortu dute igoera. Yeray Martinen taldea azkenean gol averageari esker gailendu zitzaion Coruñaiko Deportivori, puntuetan berdindu eta gero (53). Bi taldeak Bartzelona B txapeldunaren atzean geratu ziren, baina Bartzelona B ezin izan zen gora igo, goiko maila horretan lehen taldea zuelako. Unbeko taldeak ez zuen etsi igoera urrun zegoela zirudienean. Azken txanpan hamar jardunaldi galdu gabe eustea funtsezkoa izan zen Eibarren arrakastarako. Jonathan Ledesma zuzendutako filial zuri-gorriak ere beste hainbesteko merezimendua izan zuen. Bigarren itzuliaren hasieran Lezamako taldeak oin eta erdi zeukan jaitsieran. Baina teknikariak eta jokalaria gora etorri ziren. Azken bost jardunaldietan hamabost puntu bildu izanak salbazioa errealitate bihurtu zuen; inor gutxik uste izan zuen holakorik lortuko zenik.

BIZKERREK ETA ATHLETIC C-K, BEREN DEBUTEAN, RFEF-KO 2. MAILAN JARRAITZEA LORTU DUTE

Bi euskal taldeek RFEFko 2. mailan jarraitzea lortu zuten Ligako lehen parte hartzean, merezimenduz lortu ere.

Txemi García

Bikainekoa, Ohorezko Matrikulatik gertu, Bizkerre eta Athletic C debutarientzat, aurreko denboraldian igoera lortu eta gero. Carlos Docardoren getxoztarrek uste baino hobeto ekin zioten Ligari, blokeari jarraipena emanez, eta puntu kopuru handi bat eskuratu zuten. Puntu kopuru hori, gerora, erabakigarria izan zen gaitz handiagoak ekiditeko. Izan ere, bigarren bueltaren



Athleticeko bigarren taldea azkeneraino aritu zen mailari eusteko borrokan

hasieran, Boluekoak zulo batean sartu ziren. Bi garaipen bederatziz partidatan, beheko aurkariak gero eta puntu gehiago biltzen ari zirela ikusten zuten bitartean. Baina garaiz erreakzionatu zuten. Aurkari deseroso horietako bat Athletic C

izan zen. Jordi Telletxearen taldea eremu gorrian egotera ohitu zen, baina ez zituzten besoak jaitsi, nahiz eta B taldearen menpe egon salbatzeko. Liga amaieran, hamabostetik hamar puntuko saria jaso zuten etorkizuneko lehoiek.

REAL SOCIEDAD B NAGUSI LEHEN MAILA NAZIONALEAN

Real Sociedad B-k airean irabazi zuen txapelketa. Liga amaieran hamabi garaipen lortu zituen jarraian, eta horrek erakusten du, hain zuzen, donostiarrak izan zirela aurkaririk hilgarrienak erasoan, 116 gol sartuta, eta sendoenak defentsan, 8 gol bakarrik jasota. Eibar B-k egindakoa ere aipagarria izan zen. Armaginek debutari gisa jokatu zuten, eta txapeldunorde izan ziren, teoriar indartsuagoak ziren aurkarien aurretik, esaterako, Burgoen aurretik. Oiartzunek, berriz, laugarren postuan amaitu zuen, filialen erritmoari eutsi ezinik. San Inazio maila bat beherago geratu zen. Bilbotarrek amaiera aipaga-



ria osatu zuten, lor zitezkeen 18 puntuetatik 16 lortuta. Izan ere, Añorgari bere postua kendu zioten, zeinak goian egoteko borrokatu arren, modu irregularrean amaitu baitzuen. Gureen artean, estutasunak Arratiarentzat izan ziren.

Igorreko taldea hamargarren izan zen. Baina hori izan zen martxotik apiril erdialdera dena eman ondoren, tarte horretan funtsezko bost garaipen lortu baitzuten. Kanpainaren puntu beltza Aurrera Vitoriaren jaitsiera izan zen.

BIZKERRE B, EUSKAL LIGAKO TXAPELDUNA AZKEN TXANPA ZIRRARAGARRI BATEAN

Bolueko filialak lehen postua eskuratu zuen Alaves B-ren aurka. Honako hauek jaitsi ziren: Hauskaitz, Goierri Gorri eta Ipar Arriaga.

Txemi García

Bizkerre B eta Alaves B taldeen bihotzak indartsu punpatzen dute oraindik, azken jardunaldian igoera jokatu behar izan ostean. Emozioa ezin izan zen handiagoa izan. Gasteiztarrek, bi puntu gehiago-



Javier Landetak eman zien Txapelaldun Kopa

rekin, getxotarrak hartu zituzten. Boluekoak nagusitu ziren (2-3) Liga eta igoera errekor zenbakiekin eskuratzeko: 26 garaipen, 7 berdinketa eta porrot 1. Gainera, ehun gol baino gehiago egin zituzten (108), eta 28 jaso. Euskal Ligako kolosoan atzean, kanpaina osoan zehar bikain ibilitako Elorrio geratu zen. Eibar C-k laugarren amaitu zuen, kategorian izandako lehen esperientzian. Eta hori aintzat hartzen da Unben. Pauldarrak, Leioako, Basauriko Kimuak eta Zarautz taldeek ere merituzko kanpaina egin zuten, Euskal Koparako sailkatu ziren zortzi taldeen artean izan baitziren. Hortik gertu geratu ziren Lakua, Añorga B, Anaitasuna, Oiartzun B eta Betiko Neskak, ibilbide gorabeheratsua goa eginda. Arazoak hortik aurrera hasi ziren. San Inazio B-k Ligako azken txanpa ikusgarri bati esker eutsi zion mailari. Santurtziko Peña Athletic salbatu egin zen, Aurrera de Vitoriak uko egiteagatik, eta Hauskaitz, Goierri Gorri eta Ipar Arriaga, berriz, jaitsi egin ziren.

SANTURTZIK LURRALDE MAILAKO TXAPELDUNORDEEN PLAY-OFFA IRABAZI DU ETA KOPAKO ATARIKORAKO SAILKATU DA

Bizkaitarrak txapeldunordeen promozioan nagusitu ziren, San Viator talde arabarraren eta Gipuzkoako Oiartzunen aurka, eta Koparen atariko kanporaketa jokatuko dute.

Txemi García

B easainek lurralde mailako txapeldunordeen play-offa hartu zuen eta Santurtzik lehen postuan bukatu zuen San Viatorri (2-0) eta Oiartzuni (2-1) irabazita. Hola, talde bizkaitarra hurrengo denboraldiko Errege Kopako atariko faserako sailkatu da. Santurtziarrek beren nagusitasuna baieztatu zuten Loizazeko instalazioetan jokatutako triangeluarrean, bi garaipen lortuta.



Santurtzik zaleekin ospatu du triangeluarreko garaipena

Inaugurazio partidaren nagusitasunez irabazi zioten San Viatorri, beraz, azken partidaren Oiartzunen aurka berdintzea nahikoa zuten lehen postuan amaitzeko. Ez ziren konformatu eta irabazi ere egin zuten.

Garaipenak ez die balio izan, ordea, RFEFko 3. Mailara igo-

tzeko, Espainiako Futbol Federazioak erabaki baitu berregituraketaren ondoren Touring eta San Inazio (14. eta 15. postuetan sailkatuta) izatea mailari eutsiko diotenak.

Horrela, hiru lurraldeetako txapeldunak bakarrik igoko dira: Alaves C, Añorga eta Derio.

ATHLETIC CLUB EKO GAZTEAK ERREGE KOPAKO ETA TXAPELDUNEN KOPAKO FINALERDIETARA IRITSI DIRA

A thletic Club gazteak denboraldi aparta egin du, Ohorezko Mailako Ligako titulua lortuta eta Errege Kopako zein Txapeldunen Kopako finalerdietarako sailkatuta. Kasu bietan final handira iristeko pauso batera geratu zen.

K.O. txapelketan Eibar gainditu zuen lehen kanporaketan (3-1) Lezaman. Final zortzirenetan 1-0



irabazi zion Alcorconi, etxean baita ere. Eta final laurdenetan Sportingi irabazi zion penaltietan etxetik kanpo, partida golik gabe bukatu ondoren. Leonen jokatutako final four-ean Real Madril indartsuarekin gurutzatu zen finalerdietan, eta Madrilek ez zion aukerarik eman (0-2).

Txapeldunen Kopan, berriz, zuri-gorriek Bartzelona kanporatu zuten final laurdenetan, partida bikoitzera. Lezaman jokatutako joaneko partidaren golik gabe berdindu ondoren, 0-1 irabazi zuten Johan Cruyff estadioan, eta Las Rozasko final four-erako sailkatu ziren. Han, partida bizi batean, Betisek (2-0) itxi zien final handirako bidea. Hala ere, lehoikumeek denboraldi itzela egin dute.

ATHLETIC CLUB, OHOREZKO MAILAKO TXAPELDUN URTE HANDI BATEAN

Lezamakoek 2022-23 denboraldiko txapelkun titulua eskuratu zuten, Danok Bat eta Tolosa euskal taldeen jaitzierarekin amaitu zen kanpainan.

Raúl A. Collantes

Athleticek amaierara arte eutsi zion urte osoan zehar erakutsi zuten erritmo bikainari, eta Ligako

txapelkunen titulua eskuratu zuten sailkapenaren goialdean 74 puntu bilduta. Lezamako taldeak urte ona egin zuen Errege Kopako eta Txapelkunen Kopako finalerdietara iritsita. Zuri-gorriek Realaren eta Eibarren aurretik amaitu zuten Liga, eta kontuan izan behar da Real eta Eibar ere nabarmentzeko moduan ibili zirela.

Kanpainaren alde negatiboan, bi euskal talde, Danok Bat eta Tolosa, jaitsi egin direla adierazi behar da. Bilbotarren kasuan, kategoria galtzea gauza mingarria da, elitean 28 kanpaina egin ondoren, hau da,

LEIOAK LIGA NAZIONALA IRABAZI DU, ETA OHOREZKO MAILARA IGO DA

Leioak Gazteen Liga Nazionaleko titulua eskuratu zuen eta Ohorezko Mailara egin zuen jauzi. Sarriena urte bikaina bizi izan dute beheko kategorietan. Sailkapeneko bigarren eta hirugarren postuetan bukatu zuten Athletic Club B-k eta Real Sociedad B-k, beraz, Durangoko Kulturala, laugarrena, Ohorezko mailara igo da.

Gazteen Ohorezko Mailaren egungo formatua dagoenetik, Nazionalera jaitsi den lehen aldian delako. Maila galtzeak berekin dakar, gainera, gazteen bi taldeak ere herrestan eramatea.

EQE SUV

PARA NUEVOS DESAFÍOS.

Nuevo EQE SUV 100% eléctrico.

Explora nuevos horizontes con el nuevo EQE SUV y sácale partido a sus 555 km de autonomía eléctrica con el sistema Electric Intelligence, que planifica la ruta más rápida y tus paradas de recarga. Y si quieres ser más eficiente, el asistente ECO te ayuda a conducir consumiendo menos energía y aumentando así la autonomía.

Llévatelo con cargador e instalación de regalo en **Aguinaga.**

Los valores de consumo de energía y autonomía eléctrica se han obtenido a partir del procedimiento de medición prescrito en el Reglamento (UE) 715/2007 en su versión actual vigente. Los valores de consumo de combustible se calcularon sobre la base de esos valores.

EQE SUV: consumo eléctrico en kWh/100 km (ciclo mixto): 18,5 - 25,6; emisiones de CO₂ en g/km (ciclo mixto): 0.

Aguinaga

Concesionario Mercedes-Benz
C/ Retuerto, 38. 48903 BARAKALDO.
Tel.: 94 497 00 74.
www.mercedes-benz-aguinaga.es

Parque Empresarial Boroa, Parc. 2A-3. 48340 AMOREBIETA.
Tel.: 94 630 17 47.

C/ Botica Vieja, s/n. 48014 BILBAO (DEUSTO).
Tel.: 94 447 08 40.

Avda. Iparragirre, 90. 48940 LEIOA.
Tel.: 94 463 11 75.

GERNIKA, TXAPELDUN, NAZIONALERA IGO DA, LEIOA B ETA BERGARAREKIN BATERA

Urbietako taldeak amaiera zirrargarrian irabazi zuen txapelketa, non azken egunera arte ez baitzen igoko zirenen sailkapena erabaki. Leioa B eta Bergara ere igo egingo dira.

2022-23 denboraldia oso zirrargarria izan zen Gazteen Euskal Ligan, eta asko egon zen jokoan behealdean zein goialdean. Sailkapenaren goialdean hainbat talde ibili ziren borrokan azken unera arte. Ger-

nikak irabazi zuen sari nagusia, eta txapeldun titulu besapean hartu. Urbietako taldea izan zen onena 73 punturekin eta aldeko 75 golekin.

Atzean, bigarren postuan, Leioa B geratu zen, azken jardunaldian Añorgarekin nor baino nor igoera jokatu ondoren. Añorgak laugarren amaitu zuen. Sarrienako filialak nagusiak emulatu zituen, talde leioztarrarentzat gazteen igoera bikoitza ziurtatuz. Talde horiek Ohorezkoan eta Nazionalean izango dira hurrengo ekitaldian.

Bergarak osatu du igotako hirukotea, nabarmentzeko moduko

KADETE MAILAKO ATHLETIC, TXAPELDUN

Athletic Club izan zen maila autonomikoetako txapeldunik goiztiarrena. Talde zurigorriak iaz lortutako titulu berretsi zuen. Lezamako taldeak galdu gabe amaitu zuen lehen ligaxka, eta bigarrenean, tituluaren bila, lehenengo postuan amaitu zuen. Cultural de Durango, Bergara, Añorga, Tolosa eta Zarautz jaitsi egin ziren.

kanpaina bat egin ondoren, non lehen postuetan ibili baita beti, lider izatera ere iritsita.

Danok Bat C, Galdakao, Basconia eta Beti Gazte erregional mailara jaitsi ziren.



los más frescos

Líder en distribución de frutas y verduras.

¡¡ Estamos donde nos necesites!!



EUSKADIKO GAZTE MAILAKO SELEKZIOAK GALDU EGIN DU FINAL LAURDENETAN KATALUNIAREN AURKA

Euskal taldeak lehen aldiz jokatu zuen selekzio autonomikoen Estatuko txapelketa baten azken fasea, baina Kataluniaren aurka galdu zuen final laurdenetan.

Ezin izan zen izan. Euskadiko gazteen selekzioak 2-4 galdu zuen martxoan, Espainiako txapelketa-ko final laurdenetan, Kataluniaren aurka, Ourenseko Paco Paz pabiloian. Jose Manuel Corralechek zuzentzen duen taldeak aurpegia eman zuen aurkari indartsu baten kontra.



Lehen zatian ez zen golik izan eta atsedenaldira 0-0 iritsi ziren. Bigarren zatian, Kataluniako tal-

deak beste martxa bat sartu zuen eta lau goleko aldearekin urrundu zen markagailuan.



GocoTour

- **Viajes: NACIONAL e INTERNACIONAL**
- **BODAS, CELEBRACIONES, CONGRESOS, etc.**
- **VEHÍCULOS DE: 7, 18, 22, 29, 37, 40, 55, 59, 71 PLAZAS**
- **ADAPTADO MINUSVÁLIDOS (PMR)**
- **SERVICIO DE TAXI**

**Barrio Arregui | Polígono Cándor
Edificio C | 48340 AMOREBIETA
T. (+34) 94 630 82 50
24 HORAS: T. 665 295 623
E-mail: gocotour@gocotour.com
Web: www.gocotour.com**

LAUBURU IBARRA GALTZAILE, BIGARREN MAILARA IGOTZEKO PLAY-OFFEKO BIGARREN KANPORAKETAN

Denboraldi ikusgarria egin du Lauburu Ibarrak. Otxartaberekin batera, Bigarren Mailara igotzeko play-offean sartu ziren.

Fran Rodríguez

Lauburu Ibarra oso sendo ibili zen Bigarren Mailara igotzeko play-offean, nahiz eta kanporatua izan. Talde gipuzkoarra lehen lau sailkatuen artean sartu zen azken partida erregularrean eta lehen kanporaketa gainditzea lortu zuen;

hala, Anaitasuna lider gogor askoa kanporatu zuen, etxean (1-0) zein kanpoan (3-4) irabazita. Promo-

zioaren bigarren gurutzaketan, ez zuen aukerarik izan Jaengo Megi-barren aurka, eta azken horrek Bigarren Mailara igotzea lortu zuen. Otxartabe ere play-offean sartu zen, baina ez zuen lehen kanporaketa gainditu, joanekoan 6-4 galdu eta itzulerakoan 4-3 irabazi ondoren.

Bien bitartean, Zierbena play-offen sartzeko atarian geratu zen, merezimendu handiko bosgarren postua lortuz.

Alde negatiboa Afantxok jarri zuen, faroltxo gorri amaitu ostean jaitsi egingo delako.



Lauburu Ibarra

**DONIPARI,
USANSOLO ETA
ALBARDERO
HIRUGARREN
MAILARA IGO DIRA**

Euskal Ligan, titulua aurkariekiko erabateko nagusitasunez irabazi duen txapelduna izan dugu, bigarren sailkatuari 9 puntu aterata. Gipuzkoako Donipari 3. Mailara igo da, Bizkaiako UFS Usansolorekin eta Arabako Albardero Rivabellosarekin batera. Bestalde, jaitsierei dagokienez, Derioko Pozgarrik maila galdu du, puntu bakar bat ere lortu barik.

LASKORAINEK MUNDU GUZTIA HARRITU DU, BIGARREN B MAILARA IGOTZEA LORTUTA

Sorpresa handia eman du Laskorainek Hirugarren Mailan. Tolosako taldea laugarren sartu zen igoerako play-offean eta lehenengo Antiguoko txapelduna gainditu zuen (Errege Kopa jokatuko du), haren etxean 2-3 irabazita; ondoren, Gernikan 3-4 irabaziz bertako taldeari. Gernikarrek Aurrera Vitoria kanporatu zuten, etxetik kanpo 2-7 irabazita. Jaitsierari dagokienez, Gasteizko Batzarre eta Galdakaoko Lagun Onak taldeek maila galdu dute.



Laskorain

GAZTEEN MAILAKO GORAK, KADETE MAILAKO OTXARTABEK ETA HAURREN MAILAKO EGUZKIK ESTATUAN JOKATU DUTE

Denboraldi aipagarria egin dute gazte mailako Gora Nazionalak, kadete mailako Otxartabek eta haurren mailako Eguzkik, Estatuan parte hartuta.

Estatuko hitzorduetan gauza handirik egin ezin izan duten arren, Gorako gazteentzat, Otxartabeko kadeteentzat eta Eguzkiko haurrentzat aparta izan da kanpaina erregularra. Gorak bere multzoko bigarren postua lortu zuen gazte maila nazionalen, eta horrek Txapeldunen Kopa jokatzera eraman



Gorako gazte kategoriako sailkapen historikoa

zuen. Madrilgo Las Rozas tokatu zitzaion, oso hezur gogorra, eta argi eta garbi galdu zuen. Otxartabe

eta Eguzki euskal txapeldunek ere ez zuten ezer positiborik lortu Estatuko Txapelketako lehen fasean.

alzola
basque water

Pureza en Origen
Emerge a 18°C de una profundidad de más de 700m de tierra en un campo de sales por la naturaleza.
Afloramiento natural y proceso sostenible, sin intervención de aceites.

AGUA MINERAL NATURAL
Manantial de Alzola

AGUA MINERAL NATURAL
Manantial de Alzola
www.alzola.com



EUSKADIKO 3^a MAILAKO TALDEAK BERRIZ EKARRI DITU GOGORA NAZIOARTEKO GARAIPENAK, IRLANDAREKIN LASESARREN JOKATUTAKO LAGUNARTEKO PARTIDAN

Hirugarren Mailako futbolari osatutako euskal selekzioak Irlandako Errepublikari

irabazi zion, 2005eko eta 2006ko lehiak gogorarazi zituen lagunarteko batean.

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAZIOAREN ETA EUSKADIKO KIROL EGOKITUAREN FEDERAZIOAREN ARTEKO AKORDIOA

Euskadiko Futbol Federazioak eta Euskadiko Kirol Egokituaren Federazioak lankidetzaz hitzarmen historiko bat sinatu dute bi erakundeen artean. Akordio hori Espainiako Kirol Inklusiboaren Elkartearen Kirol Batzorde Nazionalaren dekalogoak ezarritako esparruaren barruan sartzen da. Hitzarmenaren helburua da federazioaren egitura konbentzionalak egokitzen joatea.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAZIOAK NUTRIZIONISTA SARTU DU BERE EGITURAN

Eolatz Zarraga sartu du kirol arloko egituran, nutrizionista gisa. Olatzek formazio hitzaldiak eman ditu dagoeneko gure 12 urtez azpiko

selekzioentzat, eta gainerako selekzioei ere lagundu die txapelketetan, gure kirolarien menuak diseinatuz eta lehiaketan zehar kontrola eta jarraipena eginez.



ROBERTO DIAZ PEREZ DEL PALOMARREK BERE

IBILBIDEA AMAITU DU

Futboleko Arbitroen Euskal Batzordeko marrazainak amaitu egin du profesional gisa egindako ibilbide luzea. 25 urtez arbitro eta marrazain gisa aritu ondoren egingo du, esperientzia zabala bizkarrean duela, Lehen Mailan 400 partida baino gehiagotan eta nazioarteko 260 partida baino gehiagotan parte hartuta.

Hona hemen bere nondik norakoak: Rio de Janeiroko 2016ko Olinpiar Jokoak, Errusiako 2018ko Munduko Txapelketa, 2021eko Eurokopa, Qataroko 2022ko Munduko Txapelketa, 20 urtez azpiko hiru Munduko Txapelketa, eta klub mailako txapelketak, hala nola 2008ko UEFA, 2020ko eta 2021eko Txapelketa Liga eta 2022ko Europa League.

ARBITROEN IGOERAK

Asier Perez de Mendiola Gonzalez de Durana eta Olatz Rivera Olmedo saritu dituzte denboraldiko arbitro onenaren Vicente Acevedo sariarekin. Gainera, Perez de Mendiola 1. mailara ere igo da marrazain gisa, eta Rivera bigarren mailara; horrenbestez, RFEFko 2. mailako partidak epaitu ahal izan ditu, arbitro nagusi moduan.

Aitor Gorostegui Fernandez Ortega 2. mailan VAR izango da aurrerantzean, eta Jon Andrade Del Olmo eta Sergio Fontecha Marquez RFEFko 2. mailako arbitro izango dira. Areto futboleko, Eder Gomez de Salazar Fernandez 1. mailara igo da, eta Ander Garrido Cordon eta Borja Reguera Prieto 2. mailara.

Ibéricos deluxe

Delicatessen

ESPECIALISTAS
EN CORTE DE JAMÓN EN EVENTOS
(BODAS, COMUNIONES...)



Tienda situada en
San Sebastián (Donostia)
Calle Narrika nº 31 Parte Vieja
Telf.: 943 423 849

www.ibericosdeluxe.com



AYESTARÁN

DONOSTIÁN

31 DE AGOSTO, 16
Tf.: 943 429 390

NARRICA, 16
Tf.: 943 422 681

SAN JERONIMO, 17
Tf.: 943 420 919



**JOYERÍA AYESTARÁN
CON EL DEPORTE
EUSKALDUN**

*Consulta en nuestras oficinas condiciones de estas promociones. **Consulta en nuestras oficinas condiciones de financiación ofrecida, sujeta a estudio y aprobación por parte de Santamutua Finanzas S.A. • Agencia Asociada.

Animar con los locales a ese equipo que ni conocías.

ES LO QUE TIENE ESTAR DE VACACIONES

Mochila de regalo*
Tarjeta visa Nautalia (sin coste de emisión o mantenimiento)*
Mejor precio* garantizado
Con la tarjeta Visa Nautalia, **financiación** a 3, 6 y 10 meses**
Precios y descuentos especiales* en nuestras vueltas para jugadores y familiares

MÁS INFORMACIÓN Y RESERVAS EN TU OFICINA NAUTALIA MÁS CERCANA:

- BIZKAIA BILBAO** · Gran Vía, 75 · 946 424 348 | Pza. San Fco. Javier, 1 · 946 404 028
- Pza. Santiago, 3 · 677 930 478 · 688 788 432 | **LAS ARENAS - GETXO** · Mayor, 4 · 946 424 682
- BASAURI** · Pedro Bilbao, 2 · 946 414 508 | **ARABA VITORIA** · C.C. Boulevard · 945 103 097
- GUIPUZKOA IRÚN** · Pza. J. R. Agirrenetxe, 3 · 943 104 342
- EIBAR** · Bidebarrieta, 18 · 943 108 960 | **RENERÍA** · Av. Navarra, 63 · 943 104 344
- URRETXU** · Labeaga, 41 · 943 109 878



NAUTALIA
Bidaiak